

Jon Mentxakatorre Odriozola

Joxeren euskal gizagintzaz

Jakinen webgunean bada urregorrizkoa den altxor bat: Joxe Azurmendik, Lorea Agirrerekin izandako solasaldian (2015), haren obraz eta pentsamenduaz egindako kontakizuna. Bere argitalpenen arteko harremanak azaldu zituen Joxek, bere obren galdegaiak eta arrazoiak. Eta opari ederra egin zigun: barne-barnetik hitz eginez, haren idazkietan sarri ezkutuan lotu den pertsonaren taupada erakutsi zuen. Beste inon ez dugu hain argi ikusiko haren iritzi zuzena, haren mezu hau:

Une honetan ezinbestekoa da euskaldunok geurea eta geurea bakkarik izango den mundu espiritual bat sortzea: geure kontuekin, geure mitoekin, geure pentsamenduaren azterketarekin, filosofia-geure mitoekin... Geurea eta geurea eskusiboa den barne mundu bat sortu. [...] Barrutik puskatuta gaudenok, hori eduki behar dugu.

Demokratak eta biolentoak (1997), *Oraingo gazte eroak* (1998), *Euskal Herria krisian* (1999), *Barkamena, kondena, tortura. Estatua kontzientzien kontrolatzailea* (2012)... zertaz ari dira? *Azken egunak Gandiagarekin* (2009) obrak muinean lantzen duen gaiaz, Joxek esan bezala:

Gure egoera politiko-moral-erlijiosoaren azterketa bat dira. Ze, azken finean, bi gauza batera gertatzen dira: nola ni neu barrutik puskatu nintzen eta gero berregin, ondo edo gaizki, baina berregin; eta, nola gure herriak bide bera egin duen. Ze gure herriak gure historia bera ibili du. Urrundu da eta urrundu gara gurasoen unibertsoetik, hori puskatu zitzaigun edo ziguten, eta berri bat eraiki nahian gabiltza, gu eta herria, nola eraiki asmatu ezinda gabiltza. Horiek dira aztergaiak.

Labur esanik, Euskal Herriaren barne osasunaren oreka eta desoreka bideak aztertzea izan da Joxeren ekimena; hots, zentzuaren eremuan jokoan dauden aldagaiak ikertzea. Eta arreta hor jar dezagun esan zigun, ondo hauspoturik datozen modako ideologietan alferreko denborarik galdu gabe, gure nahasmendua areagotu ez dadin.

Izan ere, Joxek ondo ulertu zuen herriaren baitako belaunaldien arteko adostasun-bidea, eskutik eskurako eta bihotzetik bihotzerako transmisioa, apurtu egin zitzaigula. Edo, hobe esan, apurtu egin zigutela, erabat 36ko gerraren eta gerraostearen bidez. *Zer dugu Orixeren alde* laneko hitz hauek ederrak bezain mingarriak dira:

Ondorenik larriena: ‘zahar’ eta ‘berrien’ arteko etena da. Eta ‘berriontzat’, partikulariki, haxe: ez dugula aski ezagutzen gerra aurrekoen eta ingurukoen lana eta gogorik ere ez dugula haien estudiatzeko, txartzat edo jota dauzkagu eta. Haien ‘garbizalekeria’, ‘garo usaina’, ‘klerikalismoa’ eta ez dakit zer gehiago omen dela eta.

Ordutik, barrutik puskatutakoa osatzen ari gara zenbaitetan, osatzekotan beste batzuetan. Baina oraindik ez dugu ondo asmatu. *Nor gara? Zer jakin, egin eta itxaron dezakegu? Nondik gatoz eta nora goaz?* Existentiaren azken galdera horiei herri moduan erantzun bateratua eman arte, bai belaunaldien artean, bai anai-arreben artean, ez dugu barne osasunik erdietsiko. Puskatuta egoten jarraituko dugu.

Horren jabe izan gaitezen lan egin zuen Joxek. Hortaz, irakur ditza-gun haren lanak, hausnar dezagun elkarrekin. Ez gaitezen hutsetik abia, ez iragana ikertzera, ez oraina garbitzera, ez geroa amestera. Kritiko, baina orain arte baino irekiago. Gogora dezagun: *Zer dugu Orixeren kontra* (1976) 183 orrialdekoa da; *Zer dugu Orixeren alde* (1977), 347 orrialdekoa.

Zer dugu egiteko, beraz? Herriaren barne irudimena eta taupada zaindu. Nortasunaren eta balioen iturriak jagon. Egiten dugunaren zergatiaz mintzatu. Euskararekin batera, euskaldun izatearen zentzua irakatsi. Pertsonagintzarekin batera, komunitategintzaren esanahia zabaldu. Begi hutsez ikusten dena euskal barne begiz aditzen trebatu. Gandiagak Joxeri Arantzazun erakutsi bezala.

Joxeren gizagintza gure pentsamendu askearen bidea da. Jarrai diezaigun.